

## INGRESU FLUXUA

Dirua lortzeko erabaki dugun metodoa iragarki eta laguntzen bidez izango dela izan da.

Alde batetik, gure aplikazioan sartzean eta geroago, iragarki mota desberdinak agertzen joango dira beste markak promozionatzeko eta aplikazioa kontsumitzen duten pertsonak ikusi ahal izateko. Hau lortzeko promozionatzea behar duten markekin kontaktuan jarriko gara eta bertan txertatuko dugu marka horiek transmititu nahi dutena. Garrantzitsua izango da zehaztea zein iragarki mota jarri behar dugun bertan, argi utzi nahi dugu ez dugula edozein iragarki mota ipiniko, soilik bizimodu osasuntsua eta eroso bultzatzen duten horiek ipiniko ditugu; adibidez: autobusez mugitzearena kotxea erabili beharrean, elikagai osasuntsuak jatearena prozesatuak kontsumitu beharrean, gauza berriak ikasteko kursoak edo lanean hasteko eskaintzak aukera berriak izateko eta kontuan izateko...

Beste alde batetik, gobernuari laguntza eskatzea iruditu zaigu ideia hona izan daitekela. Gure herrialdeko gaixotasun mentalari buruzko datuak azalduta eta aurkeztuta argumentu ezin hobea izan daitekeela uste dugu laguntza emateko. Irtenbide azkarra izanda, jende asko gurekin kontaktuan jar daiteke bere arazoak konpondu ahal izateko eta konponbide bat topatu ahal izateko. Gobernuari suizidioaren datu horiek jaistea komeni zaio eta guk aplikazio horrekin horrelako arazoak konpondu ditzazkegu. Azken finean bi aldeak irabazten aterako ginateke.

Modu horretan, aplikazioan ipiniko ditugun iragarkiekin eta gobernutik eskatutako laguntzekin gure aplikazioa aurrera eramatea lortu genezake. Profesionalei ordaintzeko dirua lortu dezakegu eta baita aplikazioa mantentzea ere.

Horretaz aparte, aplikazioa deskargatzen duen eta fitxa teknikoa betetzen dutenek 2 euro eman beharko ditu diagnostiko zehatza egin ahal izateko. Modu honetan, ekidituko dugu jendeak erabilpen txar bat ematea aplikazioari eta kontziente izatea bere fitxa teknikoa sailkatzea lana suposatzen duela. Lehenengo urterako espero dena 1.500.000 erregistro izatea da. 15000 euro irabaztea espero

da. Horrekin gure aplikazioa martxan jartzeko eta aurrera eramateko datuak nahikoak izango direla uste dugu.